



ERRIBERABEITIKO UDALA

Erriberabeitia udalerriko etxez-etxeko laguntza-zerbitzuaren erregelamendua behin-behinean onartzea.

Udalbatzaren osoko bilkurak 2018aren maiatzaren 23an egindako saioan erabaki du Erriberabeitia udalerriko etxez-etxeko laguntza-zerbitzuaren erregelamendua behin-behinean onartzea; eta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2. artikuluetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.2. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, espedientea 30 eguneko informazio publikoko aldiari jarri du, iragarki hau ALHAO argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aztertua izan dadin, eta, hala badagokio, haren aurka egokitzat jotzen diren alegazioak egin daitezten. Epe hori igaro eta gero alegaziorik ez bada aurkeztu, Erriberabeitia udalerriko etxez-etxeko laguntza-zerbitzuaren erregelamendua behin betiko onetsizat joko da, eta haren testu osoa Aldizkari Ofizialean sartzen den hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Ribabellosan, 2018ko maiatzaren 8an.

Alkatesa

Miren Santamaría Martínez
Ayuntamiento de Ribera Baja - Álava